

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAITZA DEBAGOIENEAN



Debagoienez guztira 7 ikastetxe desberdinek eskaintzen dituzte Lanbide Heziketako ziklo formatiboak. Arrasate, Bergara eta Oñatin bina zentro daude eta Aretxabaletan bakarra.

Guztien artean 12 familia profesioaletako 26 titulu desberdin eskaintzen dituzte, eskaintza aberatsa beraz. Hainbat titulu (6 konkretuki) zentro batek baino gehiagok eskaintzen dituzte.

ESKUALDEKO IKASTETXEEN ARTEAN 12 FAMILIA PROFESIOALETAKO 26 TITULAZIO DESBERDIN ESKAITZEN DITUZTE.

LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.
- **ZER EGONGO DA?** Lanbide Heziketako ikastetxeak, formazio akademiak, hainbat enpresa eta enplegu zerbitzuren informazio stand-ak, hitzaldi eta tailerrak, eta makina eta esperimentuak.
- **ZERTARAKO?** Lanbide Heziketaren aukeren berri eman eta eskualdeko eskaintza plazaratzeko.
- **MAIATZAK 8 eta 9an, Kulturaten, Arrasaten**


ERDI MAILAKO ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

Eskualdean eskaintzen diren zikloetatik **13 Erdi-mailakoak dira, eta 20 Goi-mailakoak**. 6 familia profesioaletan Erdi-maila eta Goi-mailako eskaintza dago, eta horrek aukera ematen du ikasketei jarraipena emateko. 3 familietan Goi-mailako zikloak soilik aurki daitezke eta Erdi-mailako zikloak bakarrik bi familietan.

Eskaintza zabalena Fabrikazio Mekanikoko familian ematen da (6 titulu), Elektrizitate eta Elektronikan (3 titulu) eta beste horren beste Administrazio arloan. Baina badago eskualdean beste familia profesional batzuetako heziketa zikloak egiteko aukera ere, grafikoan ikusi daitekeenez (zirkulu txikian Erdi-mailako zikloak eta kanpoko zirkuluan Goi-mailakoak).

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAITZA DEBAGOIENEAN 2012-13

Erdi mailako zikloak: barneko zirkulua / Goi mailako zikloak: kanpoko zirkulua



Debagoieneko Lanbide Heziketa ZIFRATAN:

- 7 ikastetxe
- 12 familia profesional
- 33 titulazio
- 1.100 ikasle baino gehiago

LASTER BERRI
GEHIAGO!

Debagoienez **1.183 ikasle daude Lanbide Heziketan matrikulatuta**, horietatik %58a (684 ikasle) goi mailako zikloetan, %37a (435 ikasle) erdi-mailako zikloetan, eta %5a (64 ikasle) eskaintza partzalean edota gaueko eskaintzan ikasten ari dira.

Atzekaldeko taulan laburtzen da eskualdeko zentroen eskaintza maila eta familiak.

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINTZA DEBAGOIENEAN

Ikastetxea	Maila	Familia	Titulua
Goi Eskola Politeknikoa	GM	Informatika	Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
		Fabrikazio mekanikoa	Fabrikazio Mekanikoko diseinua Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
		Instalazioa eta Mantenimendua	Mekatronika
		Elektrizitatea eta elektronika	Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak Automatizazio eta Robotika Industriala
Arizmendi Ikastola	EM	Osasuna	Erizaintzako zaintza osagarriak (eskaintza partziala aukeran)
	GM	Gorputz- eta kirol-ekintzak Eraikuntza eta obra zibilak	Gorputz eta kirol ekintzen animazioa Eraikuntza proiektuak
Mariaren Lagundia Ikastola	GM	Gizarte- eta kultur-zerbitzuak	Haur Hezkuntza Gizarte Integrazioa
Miguel Altuna Institutua	EM	Administrazioa eta Kudeaketa	Administraritzea kudeaketa
		Elektrizitatea eta elektronika	Instalazio elektriko eta automatikoak
		Fabrikazio mekanikoa	Mekanizazioa
	GM	Administrazioa	Administrazioa eta finantzak Diseinua fabrikazio mekanikoan
		Fabrikazio mekanikoa	Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa (eskaintza partziala aukeran)
		Instalazioa eta Mantenimendua Elektrizitatea eta elektronika	Mekatronika Automatizazio eta Robotika Industriala
Enpresagintza	GM	Administrazioa eta Kudeaketa	Administrazioa eta Finantzak Zuzendaritza Idazkaritza
		Merkataritza eta marketina	Salmenta eta Merkataritza Guneen Kudeaketa
Zuazola-Larraña	EM	Gorputz- eta kirol-ekintzak	Landa inguruneke gorputz eta kirol ekintzen gidaritza
		Instalazioa eta Mantenimendua	Mantentze-lan elektromekanikoa
		Fabrikazio mekanikoa	Mekanizazioa
Aretxabaleta Lanbide Eskola	EM	Osasuna	Erizaintzako zaintza osagarriak (eskaintza partziala aukeran)
		Ibilgailuen mantenimendua	Ibilgailuen Elektromekanika Karrozeria
		Fabrikazio mekanikoa	Mekanizazioa Soldadura eta Galdaragintza
		Gizarte- eta kultur-zerbitzuak	Menpekotasun Egoeran dauden pertsonentzako arreta
	GM	Fabrikazio mekanikoa	Metal-eraikuntza Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produkzioa (eskaintza partziala soilik)

2013ko MAIATZAK 8 eta 9an KULTURATEN

GOIAZI 2013
DEBAGOIENEN KULTURAREN AZOKA

